

LAUDIO UDALA  
KULTURA, KIROLAK ETA JAIK ZERBITZUA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko martxoaren 6an erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2020. urtean jai programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da.

DLDBN (identifikatzailea):

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Laudio Udal honen web atarian ([www.laudio.eus](http://www.laudio.eus))

Lehenengoa.- Onuradunak.

Deialdi honen bidez arautzen dira gure udalerrian 2020an norbanakoek edo jai antolatzen dituzten elkarteek sustatutako jai-egitasmoak.

Bigarrena.- Xedea.

Gure udalerrian 2020an jai-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzailea.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren bidez onartu zen. ALHAOn 2020ko martxoaren 13 datarekin argitaratuko da.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Deialdi honetarako zuzkidura 38.000,00 eurokoa izango da, 0600 3381 48014 partidaren kargatuko diren 1.500,00 euro dira eta 0600 3381 48119 partidaren kargatuko diren 36.500,00 euro dira.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta hogeita hamar egun natural pasatu arte.

Laudio, 2020ko martxoaren 6a  
Alkate-udalburua, ANDER AÑIBARRO MAESTRE